



**JOSE IGNAZIO
ANSORENA**
TXISTULARIA

Etxegabeak

Donostian bada *Infernua* deitzen den auzoa. Erdigunetik urruti, azken urteetan lantegi hutsez josia. Hantxe bizi izan dira etxerik gabeko pertsona ugari. Zorte txarrak zulora erori arazitakoak, paperik gabeko etorkinak, adikzio hainbatengatik bazterrean geratutako asko... Ehun inguru ziren. Baina udalak plangintza onartu zuen auzoa eraberritzeko, pabiloien jabeek haiek hustu nahi eta, epaitegiak aginduta, Ertzaintzak denak kalera bidali zituen. Beste aterperik ez zuten horiek *Infernu*-tik ere bota dituzte.

Ez dira desagertu ordea. Batzuk urrutira joan dira, baina beste batzuk, hirian sakabanatu. Hainbatek nahi luke, borragoma hartuta, mapatik ezabatzea. Edo ikusiko ez diren lekuetara bidaltzea: zikinak direlako, gaizki hezitakoak, mozkortu egiten direlako... Ikusgaitz bihurtu ezin direnez, ez ikusiarena egiten diegu. Agian horrek ematen die minik handiena. Etxe-dunontzat ez dira inor, ez dira ezer.

Taldetxo bat gure lantokiaren atarian egokitu da, Konstituzio Plazako arkupeetan. Euritik babesten die, baina azken hotsaldietan, ez zen gaua egiteko leku ona. Pedro Mari Otañok *Zeru txiki* esaten zion gure herriari. Hauentzat, *Infernu handi*-aren azpiko sotoa. Inongo eskubiderik ez dute. Hortik ere inoren dingilidangen puntak agintzen duenean, beherago bidaliko dituzte, estoldetara, arratoiaren kide.

Etxea izateak sendotasuna ematen du bizitzan, familiak bezala: leku segurua edozeren aurrean eta edonoiz. Horregatik da horren garrantza familia eta etxea tortura edo gehiegikeria iturri bihurtzen direnean. Elkar hartzeak beharrezko duen irudi amankomunean, etxea izan zen ganboatara eta oñaztarren arteko lis-karretatik ateratzeko asmakizuna eta mendeetan salbagarri gertatu zitzaigun. Ohi bezala, horretatik batzuk mokadu handiegia hartzen hasi ziren arte. Hori bai txertorik gabeko izurritea.

Jabetasun pribatuaren eskubideak jatorriz ahulak defendatzea zuen helburu. Inork bizitzeko txokoa bilatu, atondu, apailatu, txukundu ondoren, beste norbaitek, indartsuago edo krudelago zelako, ken ez ziezaion. Berehala irauli zen. Batzuk ase ezinak ziren. Mokadu handia harrapatu arren, beti gehiago nahi. Hori, ordea, ez da eskubidea, lapurreta baizik. Eta gure antolaketa sozial-ekonomikoak horretan du euskarri nagusia.

Nerea Arrienek gaztetxoentzat nobela egokia idatzi du: *Etxegabetuak*. Apropoza larre handian hazitako gure nerabe askorentzat, bizitzan behar beharrezkoa den gupida-justizia sentimendua lantzen has daitezten.

Juduen esaera: “Gizakumea pentsatzen, Jainkoa barrez”. Ez da beti egia. Sarri, Infernutik botatakoen kasuan bezala, negarrez ari da. ●



**ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA**
IRAKASLEA

Txertatuak lubakian

NBEk adierazpen bat egiten duenean, pentsatzen dut herrialde aberats bat edo batzuk gehiegikeriaz jokatzeko ari direla, pertsona zaurgarri ugariaren bizitza dagoela tartean eta NBEk ez duela egoeran eragiteko boterarik. NBEk salatu du herrialde aberastuek txertoak bere gain hartzeko arriskua dagoela. Herrialde pobretuetara ez direla iristen ari.

Beldurraren doktrina hainbeste hila-betez eta hain monopolio basatian – hedabidetan, politika instituzionalean, kalean, edonon – jasan, irentsi eta barneratu ondoren... zer iritzi eta erantzun so-

rrarazten zaio gorputzean hiritar on arduratsu edozein bati? Ez al du entzungo, hasieran harrituta, barneko ahots bat, politikoki oso deserosoa, “Bai, bueno, ez luke horrela izan behar baina gu geureaz kezkatzeko momentuan gaude”?

Zein erantzun gorputzean “pateran datozenak txerto gabe datoz eta arrisku-tsuak dira herrialde atzeratu zikinetatik datozelako” kanpaina mediatikoa martxan jartzen denean? Europa lubakituaren harresiak are gehiago blindatzeko legea aldatzen denean? Beldurrak elkartasuna izozten du, faxismoarentzako opari baliagarri eta funtzionala. ●